

Zubieta

Aurkibidea

Udalerria: Zubieta

Sarrera



Zubieta Nafarroa Garaiko ipar-mendebaldeko udalerria da, Malerreka ibarrean kokatuta, Baztan Bidasoa eskualdean. Iruñetik 60 kilometro iparraldera. Ezkurra errekaaren ondoan dago, 207 metroko garaieran.

- **Biztanleak:** 316
- **Euskaldunak:** %97,66

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**

- Bideoak: 0

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus

Hizlariak

Ana Mari Hualde Indakoetxea (1946)



1946an jaioa Zubietako Argiñengo bordan (Malerreka bailara). Gurasoak, labrantzakoak ziren (nekazariak); aita Aurtitzekoa (Iturengo auzoa) eta ama Zubietakoa. Hamairu senidetan hamabigarrena. Zazpi urtetatik hamabi bitartean Iturengo Aurtitz auzoan bizi izan zen, hara ezkonduko ahizparen etxera joana haren umeak zaintzeko. Atzera etxera itzuli zenean esne-banaketan, etxeko zaharren zainketan eta abarrean ibili zen. [Markos Juanikorena](#)rekin ezkondua, Penta etxean bizi dira.

Markos Juanikorena Perotxena (1938)



1938ko abenduaren 13an jaioa, Zubietako Pentan. Bi gurasoak zubietarrak, eta labrantzakoak (nekazariak). Bera zazpi senidetan laugarrena. Umetatik etxeko lanetan aritu behar izan zuen, bizikletaren erremolkean esnea Iturengo Aurtitz auzora eramaten, eta abar. 15 urterekin morroi joan zen Iturena, eta gerora ikazkile eta basomutil ibili zen. Amerikara ere joan zen, beste asko bezala eta artzain eta kapero lanak egin zituen; itzuleran, Leitzako Sarrion enplegatu zen. Hamabost urte zituenetik joaldun ibili da Zubietan ezezik, Euskal Herrian zehar. Pentan bizi da eta [Ana Mari Hualde](#)rekin ezkondu da.

Xanti Uhalde



Xanti Uhalde Zubietan jaio zen. Umetatik izan du egurra lantzeko afizioa. Gaztetatik hasi zen pinuak batzen Espainiatik eta gero lau urtez Alpeetan. Soldadutza ez egiteagatik Ameriketara (Wyoming-en udan eta neguan Coloradon) joan zen artzai-lanetan aritzera eta handik Chino-ra (Kalifornia) behiekin lan egitera. Guztira zazpi urte eman zituen Ameriketara eta 1971an bueltatu zen Euskal Herrira. Zerri-haztegi batean lan hasi zen lanean eta bertan hasi zen egurra lantzen denbora librean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com